

“HAURRENTZAKO ETA NERABEENTZAKO INGURUNE SEGURUAK ERAIKITZEN”

Honako hau Tratuon programak Bilboko Arte Sakroaren museoan eskaini zuen haurrentzako eta nerabeentzako komunitate seguruagoak bultzatzeko helburuarekin sentsibilizatzeko, gogoetak eragiteko eta proposamenak partekatzeko hitzaldiaren laburpena da.

Tratuon

Tratuon esperientzia handiko bi gizarte erakunderen arteko hitzarmenetik sortutako proiektua da eta haurren babesa eta tratu onaren alde egiten du. Bidegintza GEK eta EDE Fundazioa.

Haurrekin eta nerabeekin lan egiten dutenentzat baliabideak eta bidelaguntza sortu eta eskaini nahi ditu, testuinguru bakoitzaren hurbiltasunetik indarkeriaren aurrean babesteko.

Sentsibilizazio-, formazio- eta aholkularitza-jarduerak egiten ditugu haurtzaroa eta nerabezaroa indarkeriaren aurrean babesteko eta haurrak eta nerabeak dauden tokietan ingurune seguruak eta tratu onekoak sustatzeko.

Testuingurua

Seguru sentitzea haurren eta nerabeen premietako bat da. Garapenaren inguruko hainbat teoria psikologikok gogorarazten digute hori eta arau eta lege desberdinetan biltzen da, Haurren Eskubideen Adierazpena eta Indarkeriaren aurka Haurrak Babesteko Lege Organikoan, besteak beste.


Haurren eta nerabeen segurtasunak oinarrizko beharrak (fisikoak, emozionalak eta sozialak) asebetetzea dakar eta bizitzarako beren potentziala garatzea. Eta indarkeria jasatea helburu horren kontrako da.

Zalantzarik gabe arduratzen gaituzten hainbat erakunderen estatistikak entzuten ditugu eta helduek eragindako indarkeriaren inguruko berriak ikusten ditugu, berdinen artekoak eta norbere buruari eragindakoak. Haurtzaroko indarkeriarekin erlazionaturiko hazkunde kezkarri baten aurrean gaude?

Datu batzuek baietz pentsatzera garamatzate, nahiz eta atxiloketa gehiago ere badauden eta oraindik ez dagoen konparazio azterketa nahikorik, balizko hazkundearen irismena zehatzago baloratzeko.

Baina kontu batzuk argi ditugu:

- 1- Puntu positibo gisa, **hobeto antzematen dugu** haurrek jasaten duten indarkeria eta jada ez ditugu “arruntzat” zigor fisikoak, eskola jazarpena edo adin batzuetan pornografiarako duten irisgarritasuna.
- 2- Haurrek **oraindik ere indarkeria jasaten dute**, hainbat eratan eta, askotan, oraindik ez dugu antzematen edo berandu egiten dugu. Hori nabarmena da haurrenganako sareko komunikabideetan oharkabean pasatzen den sexu-abusuari (oraindik ere tabua) dagokionean.

- 
- 3- Halakotzat hartzen ez den **“normalizatutako” indarkeria dago** oraindik ere. Adibidez: gehiegizko babes itogarria, gurasoen banaketa gatazkatsuak jasatea, gurasoengandik etxean indarkeria bizitzea, familia-harremanetako denbora-falta, familiaren edo eskolaren espektatiben gehiegizko presioa, iruzkin matxista/sexistak, hasiberriei egiten zaizkien txantxak, eta abar. Egiturazko indarkeria edo instituzionala ere bai, zeinetan haurrak gizarte eredu estresagarri baten edo haurrak erabat zaintzen ez dituen, garai eta era egokian laguntza baliabideak emateko gai ez den edo indarkeria jasan dutenean birbiktimizatzen dituen sare baten biktima dira.
- 4- Honetan guztian antzematen dugun eta arduratzen gaituen alderdi bat dago: hurrek eta nerabeek nola jotzen duten besteenganako edo norbere buruarenganako indarkeriara, gatazkak sortzeko, egoera estresagarriari aurre egiteko edo botere beharra desegoki elikatzeko. Zentzu horretan, hauxe hauteman dugu:
- Indarkeriazko ekintzak egin eta oharkabean pasatzeko **“eskura dituzten” tresna gehiago** daude. Sare sozialek, internetek eta teknologiak, besteak beste, desabantaila horiek ekarri dituzte.
 - Neska-mutilen artean **buruko osasun-arazo** gehiago daude. Batzuek ezinegona besteenganako, espazio fisikoetako edo norbere buruarenganako indarkeriaren bidez adierazten dute. Badakigu, gainera, indarkeria jasaten duten neska-mutil askok buru osasun-arazoekin bukatzen dutela eta ondoriozko kanporako edo barnerako indarkeria egoten dela.
 - Neska-mutilek eragindako indarkeria urrunera iristen da eta **emozio deserregularizazioa eta enpatia falta** handia duen indarkeria horrek min handia egiten du.
 - Nahiz eta sentsibilizazio lana egin den, gazteen artean **aniztasunarekiko errespetu-faltarekin** erlazionaturiko gatazka dago (genero-, gaitasun-, jatorri-, ideia-aniztasuna...), desberdinaren aurrean, erradikaltasuna eta botere nartzisistaren bilaketa. Horrez gain, sexu-indarkeriaren gorakada ere badago, zeinetan sexua despertsionalizazioarekin eta indarkeriazko jarduerarekin lotzen den.

Eta zergatik gertatzen da hori? Ez dago sekula faktore bakarra. Badakigu indarkeria elika dezaketen arrisku-faktoreak daudela; besteak beste, indarkeriazko inguruneetan egotea, harreman-eredu desegokietan, sartzan den muturreko ideologia, berehalakotasunaren kultura, irudiarekiko kultua eta nartzisismoa, indibidualismoa, krisi ekonomikoa, estres-antsietate-buru osasuneko arazoak, mundu birtualeko zenbait eduki gainbegiratzeko hutsunea, aisialdi osasuntsuaren falta, pandemia, pornografiara eta indarkeriazko eduki desegokietara goiz iristea, hezkuntza eta osasun baliabide-falta, etab.

Beharrezkoa da arrisku-faktore horiek jorratzea, murriz daitezen eta, interesgarria da babes faktoreak indartzea: indarkeriari lekurik utziko ez dion eta tratu onaren kultura elikatuko duten haurrentzako eta nerabeentzako ingurune seguruak nola sortu.

Segurtasun elementuak

Jarraian segurtasun horri laguntzen dioten 10 alderdi jorratuko ditugu:

- 1- **Haurrak gizakitzat hartzeko dugun ikuspegia.** Duten adinarengatik eta baldintzengatik beren ongizatearen eta beharrianak asebetetzeko ardura guk izatea behar dute, babesa, azterketa, parte-hartzea, arreta, konexioa, garrantzia, etab. Baina horrek ez du esan nahi gure propietatekoak direnik, ezin dutela iritzirik eman, ez dakitenik ezer, etorkizuneko gizaki helduen proiektu soil direnik edo desberdintasunean jarri behar ditugunik (nahiz eta beren rola eta gurea desberdina izango den). Eta horrek ez du esan nahi ezin ditugunik hezi, mugak jarri ezin dizkiegunik edo tirano bilakatuko direnik...
- 2- **Espazio fisikoen eta emozionalen diseinua** etxea, eskola, kiroldegia, auzoa... haurrak kontuan izanda diseinatzea, seguru senti daitezen eta bizitzaren ikaskuntzak gara ditzaten. Hemen hainbat adierazle ditugu, irisgarritasuna, istripuen prebentzioa, kontrol eta hezkuntza teknologikoa, altzari egokiak, dekorazio goxoa, tenperatura, zabalera, argitasuna, jolaserako eta kirolerako elementuak, natura, taldean elkartzeko espazioa, musika eta arte elementuak, esaterako.
- 3- **Tratu onerako ikuspegiaren sentsibilizazioa eta eraketa** indarkerian buka dezaketen faktore edo seinaleak identifikatuta. Kasu honetan, noski, sareko komunikabideak gehituta.
- 4- **Osasun emozionala** lantzearen garrantzia, ezinbestekoa, indarkeriaren eta buru osasuneko arazoak prebenitzeko. Horretarako, emozioen kudeaketarako kompetentzietan hezteak garaiotako erronka izan behar du. Eta horrek geure lanketa emozionala dakar barnean.
- 5- Hezkuntzan **heziketa afektibo-sexuala** txertatzea. Autoezagutzaren alde egiteko, estereotipoak gainditzeko eta zuzeneko, zeharkako edo indarkeria sotila islatzen duten harreman modu zehatzen aurrean pentsamendu kritikoa indartzeko.
- 6- **Segurtasun hori sortzea, gizaki guztion ardura**, bakoitza bere rolean, koordinazioan eta beha, jakin edo susma ditzakegun indarkeriak eskumena duten instituzioei eta autoritateei salatzeko ardura garbi izanda.
- 7- Helduen, haurren eta nerabeen artean **laguntza sare afektiboak sortzearen** garrantzia, oinarrizko babes faktorea baita. Eta, horren barnean, gaizki sentitzen badira, indarkeria edo ezinegona jasaten badute, **laguntza nola, noiz eta nori eskatu** txertatzea.
- 8- **Sarean lan egiteko** beharra, administrazioak laguntza baliabideak sortzeko eta Tratu Onaren inguruko lan komunitariorako baliabideak eskaintzeko beharra, entitateekin, eskolekin, zentroekin elkarlanean, diziplinarteko haurrentzako babes mahaiak, sareak, elkarteak, etab.
- 9- **Hautzaroa eta nerabezaroa entzuten dituen** eta testuinguru bakoitzean (familian, eskolan, gizarte arloan, kirolean, aisialdian, etab) haurren parte-hartzea eta protagonismoa bultzatzen dituen komunitatearen estimulazioa, baita partaide senti daitezkeen ikaskuntza- /zerbitzu-proiektuetan ere: batzarretan, entzute taldeetan, ekimenetan, etab. Badakigu, adibidez, diseinuan adingabeen parte-hartzea txertatzen duten berdinen arteko indarkeriaren aurkako hezkuntza-neurriak, bitartekaritza, tutoretza, komunikazioa, berrezartze praktika, etab. askoz ere eraginkorragoak direla.
- 10- **Autozaintza** lantzearen premia, estresaren kudeaketa, haurren eta nerabeen bidelagun diren helduen buru osasuna. Geure burua zaindu, besteak zaintzeko.



Zentzu horretan, oinarrizkoa izango da haurren eta nerabeen babeserako, tratu onerako eta segurtasunerako kultura komunitarioa hedatzea. Komunitatea, auzoa, herria, hiria eta bertako pertsonak, agenteak eta baliabideak dira ingurune segurua era eraginkorrean eta parte-hartzailean egin ahal izateko espazio naturala. Eta garrantzitsua da haurtzarora zaintzeko eta indarkeriaren aurka borroka egiteko, kolaboratu eta sarean lan egin behar dugula ulertzea. Gure auzoak eta komunitateak haurren sozializazio guneak dira; beraz, ingurune seguru babesle ere izan behar dute. Eta komunitatea konektatzeko, beharrezkoa da mobilizatzea, kontzientziaztea eta formatzea. Tratu Onen erronka hori biltzen du, horretan diharduten inizatibak eta agenteak balioan jartzeko ahalegina eginda eta beste batzuek horrekin bat egin dezaten animatuta.

Nola “lur hartu” honekin guztiarekin? Badaude jada kontuan har daitezkeen esperientziak, praktika onak, adibideak, etab., bai gure etxebizitzetarako bai eskoletarako: gizarte-, aisialdi-, kirol-, osasun-baliabideak, eta auzoa. Eta, batez ere, beharrezkoak dira sentsibilizazio-, kontraste, sorrera- eta formazio-espazioak.

Alderdi horiek guztiak helduei zuzendutako hitzaldian landu ziren eta “Nik ere tratu ona eraikitzen dut” tailerra asteko beste egun batean egin zen neska-mutilekin. Beren eragite zirkulutik eta roletik komunitate segurua diseinatu ahal izan zuten, eta gogoeta egin, parte hartu eta tratu onerako proposamen orokorrak eta konpromiso pertsonalak egiteko aukera izan zuten. Hori guztia museoan jarritako Haurren Eskubideen Erakusketan hainbat panel gehituta egin zen.

Begoña Ruiz, Tratu On programako teknikaria

